

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZAMBRANAKO UDALA

Zambranako bake epaitegiko bake epaile titular eta ordezeko lanpostuak betetzeko deialdia

Botere Judizialaren Lege Organikoaren 101. eta 102. artikuluetan xedatutakoarekin bat, eta Bake Epailei buruzko ekainaren 7ko 3/1995 Araudiak 5. artikuluan xedatutakoa betez, udalbatza honek aukeratu egingo ditu eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Gobernu Batzordeari proposatu, Zambranako bake epaitegiko bake epaile titularra eta haren ordezkoa lau urterako.

Eskabidea legezko baldintzak betetzen dituzten eta Alkatetza honi zuzendutako idazki bidez eskatzen duten interesdunen eskura jarriko da, udalbatzaren udal bulegoetan eta udal honen egoitza elektronikoan (<https://zambrana.egoitzaelektronikoa.eus>). Bertan aurkeztu ahal izango dira iragarki hau ALHAOn argitaratzen denetik 15 egun baliioduneko epean.

Botere Judizialaren Lege Organikoan hala jasota dagoenez gero, honako hauek ezinbesteko betekizunak izango dira:

- Adinduna izatea.
- Nazionalitate espainiarra izatea.
- Zambranako udalerrian erroldatuta egotea.
- Ezintasuneko edo bateraezintasuneko legezko auziren batean sartuta ez egotea.

Ezintasun kausa dira honako hauek (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 303. artikulua): fisikoki edo psikikoki funtzio judiziala betetzeko gai ez izatea; dolozko delituagatik kondenatuta egotea, birgaitzea lortzen ez den bitartean; dolozko delituagatik kondenatuta egotea, absolbituta egon ezean edo largespen-autoa jaso ezean, eta eskubide zibilak erabat baliatu ezin izatea.

Bateraezintasun kausa dira honako hauek (Botere Judizialaren Lege Organikoaren 389. artikulua): Botere Judizialaz kanpoko beste edozein jurisdikziotan jardutea; herriak hautetsitako edozein kargu izatea edo Estatuko, autonomia erkidegoetako, probintzietako eta gainerako toki erakunde eta haien mendeko organismoetako izendapen politikoa izatea; Estatuaren Administrazioak, Gorte Nagusiak, Errege Etxeak, autonomia erkidegoek, probintziek, udalerriek eta haien mendeko edozein entitate, organismo edo enpresak esleitutako edo ordaindutako postu edo kargua izatea; beste edozein jurisdikzio-ordenatuko auzitegi eta epaitegietako era guztietako postuetan aritzea, eta orotariko aholkularitza juridikoa ematen jardutea.

Halaber, bake epaileak ezingo dira alderdi politiko edo sindikatu bateko kide izan eta ezingo dute horien zerbitzurako lan egin, eta debekatuta dute Botere Judizialaren Lege Organikoaren 395. artikuluan (3/1995 Araudiaren 23. artikulua) jasota dauden jarduerak gauzatzea.

Eskabidearekin batera, honako hauek aurkeztu beharko dira:

1. NANaren fotokopia.
 2. Zigor aurrekaririk ezaren ziurtagiria.
- Guztiak jakin dezaten argitaratzen da hau.

Zambrana, 2022ko irailaren 27a

Alkate-lehendakaria
AITOR ABECIA JIMÉNEZ DE ABERASTURI